



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

José Iparraguirre Altamira
María Cristina Apezteguia Saldias
Teresa Miqueo Gamio
Francisco Javier Alchu Iparraguirre
Bautista Berregui Berruet

2010eko urtarrilaren 26an, eguerdiko 12tan, Iturengo Herriko Etxean, legez egindako deialdiaren ondorioz, Aparteko Biltzarrean elkartzen dira ondoan aipatzen diren zinegotziak. Alkatea den, José M^a Gorosterrazu Elizalderen lehendakaritzapean, eta idazkaria den, Miguel José Belarra Tellechearen aitzinean, Gai Zerrendan sarturik dauden gai hauek aztertzen dira:

1. ZINEGOTZI BERRIA.

Bautista Berregui Berruet zinegotzi-hautatuak aurkeztu du idazkariaren aurrean, zinegotzi-egiaztagutuna eta aitopren hau: bateraezintasun arrazoi eta diru irabaziak sortzen ahal dizkion edozein jarduerari buruzkoa eta ondare ondasunen aitopena (Udal Erregimenaren Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985eko Legearen 75.5 artikuluan xedatutakoa (Martxoaren 22ko 9/1991eko Legeak aldatua) eta Toki Entitateko Erregimen Juridikoa, Funtzionamendu eta Antolakuntza Erregelamenduko 7, 30 eta 31. artikulua xedatzen dutena jarraituz).

Horren ondotik, alkateak galdera hau egin dio zinegotzi berriari: *“zure kontzientzia eta ohoregatik zin egiten edo hitzematzen duzu zinegotzi izateak ezartzen dizkizun betebeharrak Erregearekiko leialtasunez zintzoki beteko dituzula, eta Konstituzioa Estatuaren arau nagusi bezala zaindu eta zainaraziko duzula?”* Berregui Jn.ak hitza eman du eta kargua hartu du.

2. 2010EKO ESTATUKO FONDOA.

Ahobatez erabaki dute “Mediku Kontsulta Iturenen (2. fasea)” izeneko obrak egitea, Enplegua eta Toki Iraunkortasunerako Estatuko Fondoaren diru-laguntzarekin. Inbertsioaren zenbatekoa hau da: 43.265,00 euro BEZa gabe, 50.187,40 euro BEZa barne.

Ahobatez erabaki dute “11/2007 Legea betetzeko soluzioen hedatzea. Suebakia jartzea” izeneko inbertsioa egitea, Enplegua eta Toki Iraunkortasunerako Estatuko Fondoaren diru-laguntzarekin. Inbertsioaren zenbatekoa hau da: 1.560,00 euro BEZa gabe, 1.809,60 euro BEZa barne.

3. NILSAKO FAKTURA.

Ikusirik “Goi presioko ur hornidura, 2. fasea (Mendaur)” izeneko obren bukaerako likidazioa eta faktura aurkeztu dituela NILSAk. Kontutan hartuz Iturengo Udalarari diru-kopuru hauek ordaintzea dagokiola: 58.239,49 euro obrako BEZarengatik eta 7.409,45 euro ekarpen gisa (diru-laguntzarik gabeko %20a). NILSAko ordezkariekin izandako bilerari buruz alkateak eman dituen azalpenak entzun eta eztabaidatu ondoren, Osoko Bilkurak ahobatez erabaki du:

1. Aipatuko obretan Udalerri honi dagokion partea onestea.
2. BEZako diru-kopurua, Nafarroako Gobernutik hartzen den garaian ordaintzea NILSAri.
3. 7.409,45 euroko ekarpena 2 epeetan ordaintzea, erdia 2010eko ekainaren 30ean eta beste erdia 2010eko abenduaren 30ean.
4. Erabaki hau jakinaraztea NILSAri, behar diren ondorioetarako.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

4. BASO-LANAK 2009-2010.

Espedientean dauden agiriak aztertu ondoren eta Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legearen 73.2 c) eta 74. artikuluek xedatzen dutena kontutan hartuz, ahobatez erabaki dute:

1. “2009-2010eko KANPAINAN ITURENGO KOMUNALEAN BURUTU BEHAR DIREN BASO LANAK” kontratatzeko funtsezko baldintzak onestea, komunitate-publizitaterik gabeko prozedura negoziatua jarraituz.

2. Proposamenak aurkezteko gonbidapenak bidaltzea 3 enpresa hauei: Beti-Lan, SL, Excavaciones Joarbe, SL eta Excavaciones Olloquiegui, SA.

Eta bertzerik ezean, arratsaldeko 13ak direnean, alkate Jn.ak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.